

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Goirizelaiaren ordua (eta II)

Duela hilabete batzuk, Unibertsitateen Europako Bategite prozesuaz –Bolognaz– aldizkari honetan bertan idatzitako artikulu batean komentatu nuen une hau, martxotik udara, erabakigarria dela. Izan ere, orain erabakiko baita nola-ko titulazioak eta nolako irakaskuntza izango ditugun hurrengo urteetan EHUn.

Ikastegi guztietan eztabaidatu dira titulazio plan ezberdinak, baita oraingo eskolak emateko modu honetatik ikasleengan oinarritzen den irakaskuntza batera pasatzeak ekarriko dituen aldaketak ere: irakasgaien arteko harremanaz, elkarren arteko moduluez, ikasleen lanaz –bakarka nahiz taldeka–, irakasgaien bidez lortu beharreko gaitasunez, eta ebaluatzeko modu ezberdinez hitz egin dugu, eta horrekin batera eskaintza eta eskaera aurkeztu dugu Unibertsitate gobernu organoetan.

Jakina, denok ez gara egoera beretik abiatu eta ikastegien arteko ezberdintasun nabarmenak daude EHUn. Ikasleen kopurua irakasleko, EHUn 12koa da baina Arabako Campusean bertan badira zazpi ikasle/irakasle ratio duten ikastegiak eta hogeita bi dutenak, badira irakasleen gehiengoak hogeitabat kreditu –200 ordu klase– irakas-zama duten zentroak eta hogeita hamar –300



ALEX LARRETXI

ordu– dutenak, badira irakasgai bakarra ematen duten irakasleak eta lau irakasgai ezberdin eman behar dituztenak... Hots, ezberdintasun –klase edo kasta– asko daukela.

Batzuek uste genuen ikasketa plan berriak ezartzerakoan irizpide komun batzuk izango zirela Unibertsitate osoan (ikasle taldeak, irakasleen lan orduak...) jakinda ez dela gauza bera laborategi batean, kiroldegi batean edo ikasgela batean aritzea;

baina horren ordez lehengo egoeretatik abiatutako planifikazioarekin egin dugu topo. EHUK lau milatik gora irakasle ditu eta, duen ikasle kopurua kontuan izanik, badirudi ez dela irakasle gehiago behar izango; eta badirudi irizpide logiko horrek baduela irakurketa maltzur bat, alegia Unibertsitateari aplikatzen zaion irizpide hori ikastegietan aplikatu behar dela eta ikastegi bakoitzean moldatu beharra dugula dauzkagun errekurtsoe-kin. Zoritxarrez, nire ustez une erabakigarri honetan Errektore taldeak, eta Unibertsitateak bere

osotasunean, galdu du aukera paregabea langileen artean dauden ezberdintasunak malgutzeko, eta horren ordez EHUK –eta honetan berdin jokatzen dute sindikatu eta ideologia guztietakoek– jarraituko du irakasleen artean kasta sistema ezartzen. ■

« Zoritxarrez, une erabakigarri honetan

Errektore taldeak, eta Unibertsitateak

bere osotasunean, galdu du aukera

paregabea langileen artean dauden

ezberdintasunak malgutzeko

»

TXANDAN

Castillo Suarez

Ezkerreko aldea



S. andereak kargu hartzen die erizai-nei batzuetan

bandejan ez diotelako postrea eta kafea jarri. Erizainei, orduan, ezkerreko aldean dituela esaten diote, baina ematen du ez duela ongi ulertzen zer esan nahi dioten. Izan ere, S. andereak ezkerre galdu du: plateraren erdia jaten du, eta beste erdia gabe uzten; aurpegiaren eskuineko aldea bakarrik margotzen du... Ezin du ezkerreara begiratu, ez eta ezkerretara biratu. Eskuinerantz biratzen da gosez geratu bada, harik eta biribila osatzen duen arte. Gorpildun aulkia jarri diote

eta guzti hobeki maniobratu ahal izateko. Bitxia da S. anderearen jokabidea: ematen du

ezkerreko aldean ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzen duela; areago, ezer garrantzitsurik ezin litekeela gertatu pentsatuko balu bezala.

S. anderearen kasu klinikoa Oliver Sacks-ek jaso zuen *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona* liburuan, bitxikeria gisa. Baina irudipena dut ez zela horren bitxia andre hura; gu ere, hein batean, munduaren ezkerreko aldea bistaratu gabe bizi garela; gehiegi arduratu gabe, gainera. ■